ERRENTERIA
UDALA
Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

**Espediente zk./**Nº expediente**:** 2025IGOB0005
**Gaia/**Asunto**:** 2025eko martxoaren 18an Tokiko Gobernu Batzarra/Junta de Gobierno de fecha 18 de marzo de 2025

**Tokiko Gobernu Batzarra 2025eko martxoaren 18an eginiko ohiko bilkurari dagokion akta.**

Errenteriako Udaletxean, 2025eko martxoaren 18ko 10:30ak zirela, bigarren deialdian eta Aizpea Otaegi Mitxelena Alkatearen esanetara (ORERETA/ERRENTERIAKO EH BILDU), ondoko zinegotziak elkartu dira:

***<u>ORERETA/ERRENTERIAKO EH BILDU</u>***

- Eñaut Gracia Ibarra

***<u>ELKARREKIN ERRENTERIA Podemos, Ezker Anitza-IU, Alianza Verde</u>***

- Yolanda Martín Marcos

Ez dira etorri, baina ezinetorria adierazi dute, Alazne Korta Zulaikak, Bernar Lemos Tabernak, (*<u>ORERETA/ ERRENTERIAKO EH BILDU</u>*) eta Maite Gartzia Ontiverosek (*<u>ELKARREKIN ERRENTERIA Podemos, Ezker Anitza-IU, Alianza Verde)</u>*

Bertan dago, egintza fedatzeko, Ainhoa Esnaola Zubeldia idazkari orokorra.

**<u>1. 2025 otsaialaren 18ko ohiko bilkurari dagokion akta (2025IGOB0002) eta 2025eko otsailaren 25eko (2025IGOB0003) eta 2025eko martxoaren 11n (2025IGOB0004) ezohiko bilkurei dagozkien aktak irakurri eta, egoki bada, onartzea.</u>**

Oharrik gabe onartu dira.

**Acta de la sesión ordinaria de Junta de Gobierno Local celebrada el día 18 de marzo de 2025.**

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Errenteria, siendo las 10:30 horas del día 18 de marzo de 2025, se reúnen en segunda convocatoria, bajo la presidencia de la alcaldesa Aizpea Otaegi Mitxelena (ORERETA/ERRENTERIAKO EH BILDU), las siguientes concejalas y concejales:

***<u>ORERETA/ERRENTERIAKO EH BILDU</u>***

- Eñaut Gracia Ibarra

***<u>ELKARREKIN ERRENTERIA Podemos, Ezker Anitza-IU, Alianza Verde</u>***

- Yolanda Martín Marcos

No asisten excusando su inasistencia, Alazne Korta Zulaika, Bernar Lemos Taberna, (*<u>ORERETA/ERRENTERIAKO EH BILDU</u>*) y Maite Gartzia Ontiveros (*<u>ELKARREKIN ERRENTERIA Podemos, Ezker Anitza-IU, Alianza Verde</u>)*

Asiste y da fe del acto la secretaria general Ainhoa Esnaola Zubeldia.

**<u>1. Lectura y aprobación en su caso del acta correspondiente a la sesión ordinaria de 18 de febrero de 2025 (2025IGOB0002) y de las actas correspondientes a la sesiones extraordinarias del 25 de febrero de 2025 (2025IGOB0003) y 11 de marzo de 2025 (2025IGOB0004).</u>**

Se aprueban sin observación alguna.

ESKU0d07ae47-74c8-4243-a518-1c69568ee59b

**2. Oarsoaldeari mandatua egitea San Marko gotorlekuko eta Listorretako turismoko informazio puntuetan laguntza teknikoa delako lanak 2025an burutzeko. ( 2025ZBPR0001)**

**AURREKARIAK**

1) **San Marko Gotorlekua** Bizarain mendiaren tontorrean, 260 metroko altueran, dagoen eraikin militarra da. XIX. mendean eraikia ingurua babesteko. Gaur egun, ez du inolako erabilera militarrik, Lau Haizeta Parke Naturalaren espazio ludiko-kulturalaren parte delarik.

Gotorlekuko gela bat bisitariari arreta eskaini eta informazio turistiko puntu bezala egokitu da, bertan Errenteria eta Oarsoaldea eskualdeko informazio turistikoa ere eskaintzen delarik.

Horrez gain, Gotorlekuko hainbat espaziotan jarduera militarra birsortu da, hainbat erreplika ezarriz: metrailadoreak, kanoiak, soldaduak edota artileria, informazio-panel eta bisita gidatuekin osatuz

2) Bestalde, Errenteriako Udalaren jabetzakoa den aisialdirako **Listorreta-Barrengoloia**ko eremua, Aiako Harriko (Natura 2000 Sarea) parke naturala eta Kontserbazio Bereziko Eremuaren (KBE) bost sarrera nagusietako bat da.

Eremu honetan Udalak erabiltzaileen eskura jarritako hainbat zerbitzu publiko daude. Besteak beste, komunak, mahaiak eta eserlekuak, iturriak, natura eta kultura arloko jarduera eta bisita gidatuak, erretegiak, hondakinen gaikako bilketarako gunea, haurrentzako jolas-eremua, aparkalekua (130 ibilgailuentzat), autobus eta autokarabanan doazenentzako atseden-eremuak eta hauen ur-zikinak husteko lekuak eta udako informazio turistiko puntua.

**2. Encomienda a Oarsoaldea para la ejecución de los trabajos de asistencia técnica en los puntos de información turística del fuerte de San Marcos y Listorreta en el año 2025. (2025ZBPR0001)**

**ANTECEDENTES**

1) El **Fuerte de San Marcos** es un edificio militar situado en la cima del monte Bizarain, a 260 metros de altitud, construido en el siglo XIX para proteger la zona. Actualmente no tiene ningún uso militar y forma parte del espacio lúdico-cultural del parque natural de Lau Haizeta.

Una de las estancias del fuerte ha sido habilitada para atender y ofrecer información turística a las personas que lo visitan. También ofrece información turística de Errenteria y la comarca de Oarsoaldea en general.

Además, se ha recreado la actividad militar en diferentes espacios de la fortaleza con la instalación de réplicas de ametralladoras, cañones, soldados y artillería, completándose con paneles informativos y visitas guiadas.

2) Por otra parte, el área de ocio de **Listorreta-Barrengoloia**, propiedad del Ayuntamiento de Errenteria, es uno de los cinco accesos principales del Parque Natural de Aiako Harria (Red Natura 2000) y de la Zona Especial de Conservación (ZEC).

En esta zona existen diversos servicios públicos puestos a disposición de los usuarios por el Ayuntamiento. Entre otros, aseos, mesas y asientos, fuentes, actividades y visitas guiadas relativas a la naturaleza y la cultura, asadores, zona de recogida selectiva de residuos, área de juegos infantiles, aparcamiento (para 130 vehículos), zonas de descanso para quienes acudan en autobús y autocaravanas y puntos de desagüe para sus aguas sucias y punto de información turística en

ESKU0d07ae47-74c8-4243-a518-1c69568ee59b

verano.

Eremua erabilera publiko eta egonaldi gehien dituen Gipuzkoako aisialdi-gune garrantzitsuenetakoa da. Hori dela-eta, eguraldiak laguntzen duen udako asteburu eta jai-egunetan, gehiegizko bisitari kopuruengatik arazoak egon daitezke.

Se trata de una de las zonas de ocio más importantes de Gipuzkoa, por la gran afluencia de personas. Por lo cual, los fines de semana y festivos de verano en que hace buen tiempo, pueden surgir problemas por el exceso de visitantes.

3) Kultur baliabide hauetan turismo sustapena, informazio turistiko puntuaren kudeaketa museoko bisita gidatuak artatzea eta bisitarien harrera barnebilduko dituen **laguntza teknikoa** behar du Udalak.

3) En estos recursos culturales el Ayuntamiento necesita **apoyo técnico** que incluya la promoción turística, la gestión del punto de información turística, la atención de las visitas guiadas al museo y la recepción de visitantes.

Udalak ez du baliabide nahikorik **San Marko Gotorlekuko eta Listorreta-Barrengoloiako turismoko informazio puntuetan laguntza teknikoko ekintza horiek guztiz burutzeko**; hartara, egoki da zenbat zeregin agintzea OARSOALDEA, S.A. eskualde-garapeneko agentziari, Errenteriako Udalaren bitarteko propio pertsonifikatua den aldetik.

El Ayuntamiento no dispone de suficientes recursos para **prestar esas acciones de ayuda técnica en los puntos de información turística del Fuerte de San Marcos y Listorreta-Barrengoloia** por lo que se estima oportuno proceder al encargo de determinadas tareas a la agencia de desarrollo comarcal OARSOALDEA, S.A., en calidad de medio propio personificado del Ayuntamiento de Errenteria.

OARSOALDEA, S.A.k bitarteko pertsonal eta material nahikoak ditu laguntza teknikoko ekintzak burutzeko. Udalak bitarteko pertsonal eta materialak izan behar ditu mandatuaren edukia arin burutu ahal izateko.

OARSOALDEA, S.A. cuenta con recursos humanos y materiales suficientes para acometer las labores de ayuda técnica y el Ayuntamiento precisa disponer de los medios humanos y materiales que permiten la ejecución ágil del contenido del encargo.

Botere judizialek bitarteko propio pertsonifikatuei emandako mandatuaren irudia arautzen da Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 32. artikuluan; lege horrek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten du Espainiako ordenamendu juridikora.

La figura jurídica del encargo de un poder adjudicador a un medio propio personificado se regula en el artículo 32 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del consejo 2014/23/UE y 2014/24/EU, de 26 de febrero de 2014.

OARSOALDEA, S.A.ren bitarteko propio izaera jasota dago, Errenteria, Lezo, Oiartzun eta Pasaiako udalek plenoan hartutako erabakiaren bidez, OARSOALDEA, S.A.ren estatutuen 1. artikuluan.

La condición de medio propio de OARSOALDEA, S.A. se encuentra recogida, previo acuerdo plenario adoptado por los ayuntamientos de Errenteria, Lezo, Oiartzun y Pasaia, en el artículo 1 de los Estatutos

ESKU0d07ae47-74c8-4243-a518-1c69568ee59b

sociales de OARSOALDEA, S.A.

Hau da mandatuaren laburpena:

Ekintza hauek guztiak aurrera eramateko OARSOALDEAk 61.336,58€-ko gastuak izango lituzke guztira; horietatik 44.109,45€ San Marko Gotorlekuari dagokio eta 17.227,13€ Listorreta-Barrengoloiari

- Laguntza teknikoa San Markoko informazio turistiko puntuan hurrengo ordutegian: 09:45–14:00 eta 16:00–18:15.
  - Apirilak 16tik ekainak 1a arte asteburu eta jai-egunetan soilik.
  - Ekainak 2tik urriak 12a arte, asteazkenetik igandera bitartean
- Laguntza teknikoa Listorretako informazio bulegoan hurrengo egutegi eta ordutegian: Astelehena: 9:00-13:30, Osteguna: 8:30-14:00, Ostirala, larunbata eta igandea: 8:30-14:00 / 15:00-18:30.
  - Ekainak 13tik abuztuak 17 arte, ostegunetik igandera bitartean eta jai-egunetan.
  - Abuztuak 18tik urriak 12 arte, astelehena eta ostegunetik igandera.
- San Marko gotorlekuaren ezaugarriak kontuan izanik zerbitzua gutxienez bi turismo agentek bete beharko dute, eta Listorretakoan batek.
- Bermatu beharko da turismo zerbitzua ematean langileek FPII Informazio eta komertzializazio turistikoan gutxieneko titulazioa izatea eta hizkuntza gaitasunei dagokionez euskaran C1 maila izatea eta frantsesa eta ingelesean maila altua (Listorretarako maila ertainak).

El resumen del encargo es el siguiente:

Para llevar a cabo todas estas acciones OARSOALDEA tendría un total de gastos de 61.336,58€, de los cuales 44.109,45€ corresponden al Fuerte San Marcos y 17.227,13€ a los gastos de Listorreta-Barrengoloia.

- Asistencia técnica en el punto de información turística de San Marcos en el siguiente horario: 9:45–14:00 y de 16:00–18:15.
  - Del 16 de abril al 1 de junio, sólo fines de semana y festivos.
  - Del 2 de junio al 12 de octubre, de miércoles a domingo.
- Asistencia técnica en el punto de información turística de Listorreta en el siguiente calendario y horario: lunes: 9:00-13:30; jueves: 8:30-14:00; viernes, sábado y domingo: 8:30-14:00 y 15:00-18:30.
  - Del 13 de junio al 17 de agosto, de jueves a domingo y festivos.
  - Del 18 de agoto al 12 de octubre, lunes, de jueves a domingos y festivos
- Teniendo en cuenta las características del Fuerte de San Marcos, el servicio deberá ser llevarlo a cabo por, al menos, dos agentes de turismo. Uno/a, en el caso de Listorreta.
- Se deberá garantizar para ofrecer el servicio que las personas trabajadoras estén en posesión de la titulación mínima en Información y comercialización turística FPII. En cuanto a las competencias lingüísticas, deberán tener un nivel C1 en euskera y un nivel alto en francés e inglés (niveles medios para

ESKU0d07ae47-74c8-4243-a518-1c69568ee59b

- Turismo informazio puntuan Errenteria, Oarsoaldea eskualdea eta Aiako Harriko Parke Naturaleko informazio turistikoa eta naturari buruzkoa eskaintzea.

- San Marko Gotorlekurako bisita gidatuak eskaintzea Oarsoaldea eskualdearen garapena barne hartuko dituen ibilbidea osatuz.

- San Marko Gotorlekuan Aizpitarte kobazuloen inguruko instalazio, proiekzio eta erakusketa egonkorraren inguruko argibideak eta informazioa eskaintzea eta bisita gidatuko ibilbidean txertatzea.

- San Marko Gotorlekura Tren Berdea edo moduko garraiorik badago erreserbak kudeatzea.

- Turismo promoziorako ekintzak burutzea.

- Zerbitzua emateko beharrezko diren ordenagailu, telefono, eta bestelako baliabide informatikoez arduratzea.

- Proiektua gauzatu ondoren memoria bat igortzea egikaritu diren jarduerak azalduz.

**ZUZENBIDE OINARRIAK**

- Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 32. artikulua.

- 7/1985 Lege araudiaren 21.1.s. artikulua.

Ingurumeneko goi-mailako teknikari Iñaki Azkaratek eta Kultura Ondareko teknikari Arantxa Vegak egindako txosten teknikoa ikusita.

Listorreta).

- Ofrecer en los puntos de información turística información referida a la comarca de Oarsoaldea e información turística y relativa a la naturaleza del parque natural de Aiako Harria.

- Ofrecer visitas guiadas al Fuerte de San Marcos, completando un recorrido que incluya el desarrollo de la comarca de Oarsoaldea.

- Indicaciones e información sobre las instalaciones, proyecciones y exposición estable de las cuevas de Aizpitarte en el Fuerte de San Marcos e integración en el itinerario de visita guiada.

- Gestionar las reservas de los viajes que haga el Tren Berdea o similar al Fuerte de San Marcos

- Realizar actividades para la promoción turística.

- Atender los ordenadores, teléfonos y otros medios informáticos necesarios para la prestación del servicio.

- Enviar una memoria de las actividades ejecutadas, en el plazo de un mes tras la ejecución del proyecto.

**FUNDAMENTOS DE DERECHO**

- Artículo 32 de la Ley 9/2017 de Contratos del Sector Público.

- Artículo 21.1.s. de la Ley 7/1985 de Bases de Régimen Local.

Visto el informe técnico emitido por Técnico Superior de Medioambiente Iñaki Azkarate y la Técnica de Patrimonio Cultural Arantxa Vega.

ESKU0d07ae47-74c8-4243-a518-1c69568ee59b

Aholkulari juridikoak emandako txosten juridikoa ikusita.

Udal Kontuhartzaleak fizkalizazio txostena egin du.

Kulturako Delegatuak egindako erabaki-proposamena eta Aholkulari Juridikoak espedientean jasotako akordio-proposamenari emandako adostasuna ikusita.

Horregatik guztiagatik, Udal honetako Alkateak eskuordetutako eskumenak baliatuz, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako hau

**ERABAKI DU**

**1.- Errenteriako Udalaren bitarteko propio den OARSOALDEA, S.A. eskualdeko garapen-agentziari mandatua egitea San Marko Gotorlekuko eta Listorreta-Barrengoloiako turismoko informazio puntuetan laguntza teknikoa** delako lanak burutzeko.

2.- Osotara 61.336,58 €ko tarifa bidezko ordaina ezartzea bitarteko propioarentzat, (44.109,45€ San Marko Gotorlekuari dagokio eta 17.227,13€ Listorreta-Barrengoloiari).

3.- Oarsoaldearen izenean baimentzea 61.336,58€ko gastua,1 0830.422.01.334.10 2025 (9425) partidaren kontura, AD-0729-2025.

4- Mandatu hau arautuko dute klausula hauek:

<u>I.- APLIKAZIO-EREMU SUBJEKTIBOA</u>

Mandatu honek izaera instrumentala du, eta ez kontraktuala; hartara, ebazpen honen bidez eratuko

Visto el Informe jurídico emitido por la Asesora Jurídica.

Visto el informe de fiscalización de la Interventora Municipal.

Vista la propuesta de acuerdo de la Delegada de Cultura y la conformidad dada por la Asesora Jurídica a la propuesta de acuerdo que consta en el expediente.

Por todo ello, en ejercicio de las competencias conferidas en virtud de delegación efectuada por la Alcaldesa de este Ayuntamiento, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad,

**ACUERDA**

**1º.- Encargar a la agencia de desarrollo comarcal y medio propio del Ayuntamiento de Errenteria, OARSOALDEA, S.A. la realización de los trabajos denominados ayuda técnica en los puntos de información turística del Fuerte de San Marcos y Listorreta-Barrengoloia.**

2º.- Establecer en concepto de compensación tarifaria a percibir por el medio propio por la ejecución del encargo la cantidad total de 61.336,58€; (44.109,45€ por los costes correspondientes al Fuerte San Marcos y 17.227,13€ a Listorreta-Barrengoloi.).

3º.- Autorizar y disponer a favor de Oarsoaldea un gasto de 61.336,58€ con cargo a la partida 1 0830.422.01.334.10 2025 (9425), AD-0729-2025.

4º.- El presente encargo se regirá por las siguientes cláusulas:

<u>I.- ÁMBITO DE APLICACIÓN SUBJETIVO</u>

El presente encargo tiene naturaleza instrumental y no contractual, por lo que, a todos los efectos se

ESKU0d07ae47-74c8-4243-a518-1c69568ee59b

da barne-izaerako harreman bat, mendekoa eta manukoa. Hartara, mandatu hau eratzen da Udalak unilateralki ezarritako jarraibideen arabera burutu behar den agindu gisa. OARSOALDEA, S.A. ez da hirugarren bat harreman honetan, Errenteriako Udalaren bitarteko propio pertsonifikatu gisa jarduten baitu. OARSOALDEA, S.A.ren jarduketa ulertu behar da Udaleko Kultura eta Ingurumen departamentuek emandako jarraibideen arabera burutua.

constituye mediante esta resolución una relación de carácter interno, dependiente y subordinado. Este encargo, se configura, por tanto, como una orden de ejecución que se ha de llevar a cabo conforme a las instrucciones que fija unilateralmente el Ayuntamiento. OARSOALDEA, S.A. no es un tercero en esta relación, sino que actúa como medio propio personificado del Ayuntamiento de Errenteria. La actuación de OARSOALDEA, S.A. deberá ser realizada bajo las instrucciones que dicte los Departamentos de Cultura y Medioambiente del Ayuntamiento.

**II.- MANDATUAREN XEDEA**

Burutu beharreko lanak izango dira aurrekarietan jasotakoak.

**II.- OBJETO DEL ENCARGO**

Los trabajos a ejecutar se corresponderán exactamente con la relación de los trabajos descritos en los antecedentes de esta resolución.

**III.- MANDATUAREN ZUZENDARITZA**

OARSOALDEA, S.A.k solaskide bat izendatuko du agindutako lanen inguruko edozein kudeaketaz arduratzeko, eta Udalaren Kultura Departamentuari jakinaraziko dio.

Halaber, Udalak Kultur Ondare Teknikaria izendatzen du mandatu hau koordinatzeaz eta gainbegiratzeaz arduratzeko.

**III.- DIRECCIÓN DEL ENCARGO**

OARSOALDEA S.A. designará un/a interlocutor/a responsable a los efectos de cualquier gestión relacionada con el desarrollo de los trabajos encomendados y lo notificará al Departamento de Cultura del Ayuntamiento.

El Ayuntamiento designa como encargada de la coordinación y supervisión del presente encargo a la Técnica de Patrimonio Cultural,

**IV.- ERREGIMEN EKONOMIKO-FINANTZARIOA**

Aurrekontua ezarri da mandatu honen txosten teknikoaren eranskinean zehaztutako lanen eta kostu-xehetasunen arabera, eta ez dago BEZaren mende.

Udalak ez du bere gain hartuko lan kontratu-harremanen inguruko inolako ardurarik.

Zeregin hauek garatzeko Oarsoaldeak ahal dituen dirulaguntzetara aurkeztuko ditu ekintzak.

**IV.- RÉGIMEN ECONÓMICO Y FINANCIERO**

El presupuesto se ha establecido de conformidad con los trabajos y detalle de costes del anexo del informe técnico de este encargo, que no se encuentra sujeto a IVA.

El Ayuntamiento no asumirá ninguna responsabilidad por la relación contractual de los contratos laborales.

Para el desarrollo de estas labores, Oarsoaldea presentara las acciones a todas las ayudas que

ESKU0d07ae47-74c8-4243-a518-1c69568ee59b

Dirulaguntzen ebazpenak jaso eta gero proiektuaren likidazioa egingo da. Oarsoaldeak dirulaguntzen bidez jaso ez duen dirua Errenteriako Udalak eman beharko dio.

pueda. Una vez recibidas las resoluciones de las ayudas se procederá a realizar la liquidación del proyecto. El Ayuntamiento de Errenteria deberá abonar a Oarsoaldea el importe que no se financia mediante las ayudas.

**V.- LANAK ORDAINTZEA**

Egindako lanak baliabide bakoitzeko hurrengo moduan ordainduko dira:

- %70, kontratua hasi eta hilabetera.

- %30, memoria entregatu eta hilabetera.

Jarduketa amaitutakoan, errekonozimendu administratiboa eta likidazioa egingo ditu Udalak, gehienez ere sei hileko epean.

**V.- ABONO DE LOS TRABAJOS**

El abono de los trabajos por cada unos de los recursos se efectuará de la siguiente forma:

- 70 % al mes de iniciados.

- 30 % una vez finalizados y aprobada la memoria.

Finalizada la actuación se realizará el correspondiente reconocimiento administrativo y liquidación por parte del Ayuntamiento, debiéndose realizar en el plazo máximo de seis meses.

**VI.- INDARRALDIA ETA INDARREAN SARTZEA**

OARSOALDEA, S.A.ren mandatua indarrean sartuko da 2025eko apirilaren 16an eta amaituko da 2025eko urriaren 12an. Mandatuko lanak ordurako amaitzen ez badira, lanak burutzeko epea luzatu ahal izango da, OARSOALDEA, S.A.k eskaera arrazoitua aurkeztuta hasierako epea amaitu aurretik. Epe horren luzapena ez da izango mandatuan ezarritako hasierako epearen erdia baino gehiago, eta alkatearen ebazpen bidez emango da.

**VI .-PLAZO DE VIGENCIA Y ENTRADA EN VIGOR**

El encargo a OARSOALDEA S.A. entrará en vigor el 16 de abril de 2025 y finalizará el día 12 de octubre de 2025. En el supuesto de que no se hubieran concluido los trabajos contenidos en el encargo, el plazo de ejecución se podrá ampliar, previa petición motivada de OARSOALDEA, S.A. antes de la finalización del mismo. La ampliación del plazo de ejecución no excederá de la mitad del plazo establecido inicialmente en el encargo formulado, y se otorgará por resolución de Alcaldía.

**VII- DESADOSTASUNETARAKO ERREGIMENA**

Mandatu honen interpretazioaren eta gauzatzearen inguruan sor daitezkeen eztabaidak exekutiboki ebatziko ditu Errenteriako Udalak eta OARSOALDEA, S.A.ri jakinaraziko dizkio; ebazpen horiek izango dira mandatu hau burutzeko aginduaren pare. Aurreikusi ez denerako aplikatuko da kontratazio publikorako araudian mandatua burutzean sortzen diren gorabehera teknikoen inguruan sor daitezkeen zalantza eta hutsuneak

**VII.- RÉGIMEN EN CASO DE DISCREPANCIAS**

Las controversias que pudieran plantearse sobre la interpretación y ejecución del presente encargo serán resueltas de forma ejecutiva por el Ayuntamiento de Errenteria y se comunicarán a OARSOALDEA, S.A. teniendo las mismas, consideración de orden de ejecución del presente encargo. En todo lo no previsto se aplicará, analógicamente, lo dispuesto en la normativa de contratación pública para resolver las dudas y lagunas que surjan con relación a las

ESKU0d07ae47-74c8-4243-a518-1c69568ee59b

konpontzeko ezarritakoa. Inola ere ez dira aplikatuko izaeragatik harremanaren izaera instrumentalarekin bateraezinak diren alderdiak.

incidencias de carácter técnico que se planteen en la ejecución del encargo. En ningún caso serán de aplicación los aspectos que, por su propia naturaleza, sean incompatibles con el carácter instrumental de la relación.

5.- Ebazpen honen jakinarazpena egitea Oarsoaldeari, Kultura Departamentuari, Ingurumen Departamentuari, Kontratazio eta Ondare Departamentuari eta Udaleko Kontuhartzailetzari.

5º.- Notificar la presente resolución a Oarsoaldea y ponerla en conocimiento de los Departamentos de Cultura, Medioambiente, Contratación y Patrimonio y la Intervención Municipal.

**3. 2025eko taxi tarifen proposamena II. (2025UTTA0001)**

**3. Propuesta de tarifas de taxi para el año 2025 II. (2025UTTA0001)**

**AURREKARIAK**

**ANTECEDENTES**

Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko azaroaren 5ean hartutako erabakiaren bidez, une horretan indarrean zeuden taxi-tarifei eustea erabaki zen, Donostialdeko Erregimen Bereziko Eremu berria sortzeko prozesua abian zegoela, tarifa horiek EBEren hitzarmenean jasota zeudelako. Erabaki horren arabera, gai horiek EBEren jarraipen-batzordean eztabaidatu behar ziren, kide ziren udal guztiekin, eta erabaki bateratu bat hartzeko.

Mediante acuerdo de la Junta de Gobierno Local de fecha 5 de noviembre de 2024 se acordó mantener las tarifas de taxi vigentes en el momento, en base a que estando en marcha el proceso de creación de la nueva Zona de Régimen Especial de Donostialdea, esas tarifas estaban recogidas en el convenio de la ZRE, siendo necesario que dichas cuestiones fuesen tratadas en la comisión de seguimiento de la ZRE con todos los ayuntamientos integrantes y dar una respuesta unificada.

Erabaki hori Eusko Jaurlaritzan prezio-politikaren eskumena duen zuzendaritzari jakinarazi zitzaion, behin betiko onar zezan.

Dicho acuerdo fue notificado a la dirección competente en política de precios en el Gobierno Vasco para su aprobación definitiva.

Hiri barruko auto-taxi zerbitzuaren tarifak berrikusteko eskaria aurkeztu diete sektoreko elkarteek Donostialdeko Erregimen Bereziko Eremua (Donostialdeko EBEa, aurrerantzean) osatzen duten udalei.

Las asociaciones del sector han presentado una solicitud de revisión de las tarifas del servicio urbano de auto-taxi a los ayuntamientos que conforman la Zona de Régimen Especial de Donostialdea (en adelante ZRE de Donostialdea).

Mugikortasuneko, Turismoko eta Lurralde Antolaketako foru diputatuaren 1.2 apartatuak, zeinaren bidez onartzen baita Donostialdeko Araubide Bereziko Eremua eratzea, Turismoko Ibilgailuetan Hiri barruko eta Hiriarteko Garraio

El apartado 1.2 de la Orden Foral de la diputada foral de Movilidad, Turismo y Ordenación del Territorio, mediante la cual se aprueba la constitución de la Zona de Régimen Especial de Donostialdea a los efectos de prestación del servicio de Transporte Público Urbano e Interurbano en

ESKU0d07ae47-74c8-4243-a518-1c69568ee59b

Publikoaren zerbitzua emateko, honako hau ezartzen du: Aplikatu beharreko tarifa, kasuan kasuko zerbitzuaren arabera, bera osatzen duten udalerri guztientzat izango da. .

Automóviles de Turismo establece que "*La tarifa de aplicación, según el servicio que se trate, será común a todos los municipios integrantes.*".

Donostialdeko Erregimen Bereziko Eremuko Jarraipen Batzordea 2025eko martxoaren 7an bildu zen eta gaur egun indarrean dauden tarifak %5,02 igotzea proposatu zuen.

La Comisión de Seguimiento de la Zona de Régimen Especial de Donostialdea se reunió en fecha 7 de marzo de 2025 proponiendo un incremento del 5,02% sobre las tarifas actualmente vigentes.

Hori hórrela, EBEko udalerrietako hiri tarifen azken urteetako aldaketak kontuan hartuta, tarifa bateratuen ondoriozko diru-sarreren doikuntzari buruzko azterketa egin ondoren (horrek igoera puntual eta ezohikoa planteatzen du), eta taxi zerbitzuari eragiten dioten kostuen azken bi urteetako eboluzioaren azterketa desindexatua eginik, %5,02ko tarifen igoera aplikatzea proposatzen da.

En su virtud, teniendo en cuenta las modificaciones de las tarifas urbanas de los municipios de la ZRE en los últimos años y habiendo realizado un análisis relativo al reajuste de los ingresos que derivan de las tarifas unificadas, que plantea una subida puntual y extraordinaria, además del análisis desindexado de la evolución de los costes que afectan al servicio de taxi de los últimos dos años, se propone aplicar una subida de tarifas del 5,02%.

**ZUZENBIDE OINARRIAK**

- 2013ko uztailaren 18an onartutako Auto-taxi zerbitzuaren udal erreglamendua.

- 2010eko ekainaren 15eko, Ekonomia eta Ogasun sailburuaren Agindua ikusirik, baimendutako prezioak eta jakinarazitako prezioak berrikusteko prozedurari buruzkoa.

- 2/2000 Legea, ekainaren 29koa, Bidaiariak Herri Barruan eta Herriz Kanpo kotxez garraiatzeko Zerbitzu Publikoa Arautzen duena.

- 243/2002 Dekretua, urriaren 15ekoa, bidaiariak herri barruan eta herriz kanpo kotxez garraiatzeko zerbitzu publikoa arautzen duen Legearen Erregelamendua onartzen duena.

- Espainiako Ekonomiaren Desindexazioaren martxoaren 30eko 2/2015 Legea. Indexazioa diru-

**FUNDAMENTOS DE DERECHO**

- Reglamento municipal del servicio de auto taxi que fue aprobado el 18 de julio de 2013.

- Orden de 15 de junio de 2010 del Consejero de Economía y Hacienda, por la que se establece el procedimiento de revisión de precios autorizados y precios.

- Ley 2/2000, de 29 de junio, reguladora del Servicio Público de Transporte Urbano e Interurbano de Viajeros en Automóviles.

- Decreto 243/2002, de 15 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley reguladora del servicio público de transporte urbano e interurbano de viajeros en coche.

- Ley 2/2015, de 30 de marzo, de Desindexación de la Economía Española.

ESKU0d07ae47-74c8-4243-a518-1c69568ee59b

balio baten bilakaera pre

Udaltzaingoko ofizial buruak aldeko txostena eman du.

El Oficial Jefe de la Policía Local ha emitido informe favorable al respecto.

Trafiko eta Garraioko delegatuak egindako erabakiproposamena, eta udal aholkulari juridikoak espedientean jasotako akordio-proposamenari emandako adostasuna ikusita.

Vista la propuesta de acuerdo del delegado de Tráfico y Transporte y la conformidad dada por la asesora jurídica municipal a la propuesta de acuerdo que consta en el expediente.

Horregatik guztiagatik, Udal honetako Alkatetzak eskuordetutako eskumenak baliatuz, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako hau

Por todo ello, en ejercicio de las competencias conferidas en virtud de delegación efectuada por la Alcaldía de este Ayuntamiento, la Junta de Gobierno Local,por unanimidad,

**ERABAKI DU**

**ACUERDA**

**1.-** ONARTZEA Errenteriako Auto-taxi hiri zerbitzuaren tarifa berriak 2025erako Donostialdeko EBEko osatzen duten udalek proposatutakoak, hauek izanik:

**1.-** APROBAR el nuevo cuadro de tarifas para el servicio de Auto-Taxi de Errenteria del año 2025 propuesto por los ayuntamientos que conforman la ZRE de Donostialdea , siendo el siguiente:

| **1.TARIFA / TARIFA 1** | | | **2.TARIFA / TARIFA 2** | | | **5.TARIFA / TARIFA 5** | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Gutxienekoa | Egindako km | Itxaronaldia orduko | Gutxienekoa | Egindako km | Itxaronaldia orduko | Gutxienekoa | Egindako km | Itxaronaldia orduko |
| Mínima | Km recorrido | Hora de espera | Mínima | Km recorrido | Hora de espera | Mínima | Km recorrido | Hora de espera |
| 6,263909 | 0,879699 | 25,540059 | 7,257320 | 1,364838 | 34,053411 | 7,272605 | 1,412608 | 35,245199 |
| | | | | | | | | |

| | | **1.TARIFA / TARIFA 1** | | | **2.TARIFA / TARIFA 2** | | | **5.TARIFA / TARIFA 5** | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Conceptos** | **Subidas** | **Gutxieneko** | **Egindako km** | **Itxaronaldia orduko** | **Gutxienekoa** | **Egindako km** | **Itxaronaldia orduko** | **Gutxieneko** | **Egindako km** | **Itxaronaldia orduko** |
| | | **Mínima** | **Km recorrido** | **Hora de espera** | **Mínima** | **Km recorrido** | **Hora de espera** | **Mínima** | **Km recorrido** | **Hora de espera** |
| Actuales(Donostia 2023) | | 5,964693 | 0,837677 | 24,320055 | 6,910650 | 1,299642 | 32,426738 | 6,925205 | 1,345130 | 33,561597 |
| Reajuste ingresos | 1,45 | 6,051181 | 0,849823 | 24,672696 | 7,010854 | 1,318487 | 32,896926 | 7,025620 | 1,364634 | 34,048240 |
| Subida costes 2022-23 | 1,04 | 6,114113 | 0,858661 | 24,929292 | 7,083767 | 1,332199 | 33,239054 | 7,098687 | 1,378827 | 34,402342 |
| Subida costes 2023-24 | 2,45 | 6,263909 | 0,879699 | 25,540059 | 7,257320 | 1,364838 | 34,053411 | 7,272605 | 1,412608 | 35,245199 |
| | | | | | | | | | | |
| | Subida | 5,02 | 5,02 | 5,02 | 5,02 | 5,02 | 5,02 | 5,02 | 5,02 | 5,02 |

ESKU0d07ae47-74c8-4243-a518-1c69568ee59b

| | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | acum. | | | | | | | | | |

1 Tarifa aplikagarria hiri-zerbitzuan lanegunean, 7:00etatik 22:00etara.

2 Tarifa aplikagarria larunbat, igande eta autonomia-erkidegoan eta toki-araudian jaieguntzat jotako egunetan. Gainera, aplikatuko da lanegunetan, 22:00etatik 7:00etara, ostiral eta jaiegunen bezperetako 22:00etatik larunbat edo hurrengo jaieguneko 7:00ak arte izan ezik.

2** tarifa honen barne egongo dira uztailaren 22, 23, 24a eta 25a (herriko jaiak) eta abenduaren 24a eta 31.

5 Tarifa aplikagarria ostiral, larunbat eta jaiegun-bezperetako 22:00etatik larunbat, igande eta dagozkion jaiegunetako 7:00etara.

**2.-** Auto-taxi lizentzien titularrei adieraztea tarifak derrigor bete behar driela eta eskatzen dituzten erabiltzaileen eskura egon behar dutela.

**3.-** Bidaltzea espedientea prezioak ezartzeko ardura duen Eusko Jaurlaritzako beste edozein zuzendaritzara, behin betiko onarpena emateko

Tarifa 1 aplicable al servicio urbano en día laborable de 7:00 horas a 22:00 horas.

Tarifa 2 aplicable los sábados, domingos y días declarados festivos en la normativa autonómica y local. Se aplicará igualmente los días laborables entre las 22:00 horas y las 7:00 horas salvo desde las 22:00 horas de los viernes y vísperas de festivos hasta las 7:00 horas del sábado o día festivo siguiente.

También estarán incluidos en esta tarifa 2** los días 22, 23,24 y 25 de julio (fiestas patronales) y 24 y 31 de diciembre.

Tarifa 5 aplicable entre las 22:00 horas de los viernes, sábados y vísperas de festivos y las 7:00 horas de los sábados, domingos y festivos correspondientes.

**2.-** Advertir a los titulares de las licencias municipales de Auto Taxi que las tarifas son de obligada observancia y que deberán estar a disposición de los usuarios que las soliciten.

**3.-** Remitir copia del expediente a la Dirección competente en política de precios en el Gobierno Vasco para su aprobación definitiva.

**4. REHABITEL elkartea herriaren onurakoak izan eta dirua irabaztea xede ez duten Elkarteen Udal Erregistroan inskribatzea. (2025IIGE0002).**

### AURREKARIAK

Errenteriako Udalak, 2001eko irailaren 28an, Herriaren Onurakoak izan eta Dirua irabaztea xede ez duten elkarteen udal erregistroa arautzen duen erregelamendua onartu zuen.

Erregistro honetan inskribaturik egoteko honako baldintzak bete behar dira:

1.- Errenteriako udalerrian lankidetza-lanak egitea.

**4. Inscripción de la asociación REHABITEL en el Registro Municipal de Asociaciones de Interés Municipal sin ánimo de lucro. (2025IIGE0002).**

### ANTECEDENTES

Con fecha 28 de septiembre del 2001 el Ayuntamiento de Errenteria aprobó el Reglamento Regulador del Registro Municipal de Asociaciones de Interés Municipal sin ánimo de lucro.

Las condiciones para estar inscrito en este registro son las siguientes:

1.- Realizar actividades de colaboración en el

ESKU0d07ae47-74c8-4243-a518-1c69568ee59b

municipio de Errenteria.

2.- Eusko Jaurlaritzan Justizia, Ekonomia eta Gizarte Segurantza Saileko Elkarteen Erregistroan behar bezala inskribatuta egotea.

2.- Estar debidamente inscritos en el registro de Asociaciones del Departamento de Justicia, Economía y Seguridad Social del Gobierno Vasco.

3.- Elkartearen zuzeneko edo zeharkako eginkizunek, enpresaritza, lan-profesional edo artistikoekin zerikusirik ez izatea.

3.- No estar vinculado directa o indirectamente con el ejercicio de actividades empresariales, profesionales o artísticas.

2024ko azaroaren 19an Maider Gonzalez Garmendia andereak REHABITEL elkartea ordezkatuz, aipatutako erregistroan inskribatzeko eskaera egin zuen.

Con fecha 19 de noviembre de 2024, Maider Gonzalez Garmendia en representación de la Asociación REHABITEL solicita ser inscrita en dicho registro.

Eskaerarekin batera, erregelamenduak eskatutako agiriak aurkeztu zituen.

Junto con la solicitud presentan la documentación requerida en el reglamento.

Gizarte Zerbitzuetako teknikariak, Bittor Fernandez-ek 2025eko otsailaren 18an, elkartea inskribatzeko aldeko txostena egin du.

Visto el informe del técnico de Servicios Sociales Bittor Fernández de fecha 18 de febrero de 2025, favorable a la inscripción de la citada asociación.

Ikusirik Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi delegatuaren erabaki proposamena eta Gizarte Zerbitzuetako arduradunak erabaki proposamen horri emandako adostasuna.

Vista la propuesta de acuerdo del concejal delegado de Servicios Sociales y la conformidad dada por la responsable de Servicios Sociales a dicha propuesta de acuerdo.

Horregatik guztiagatik, Udal honetako eskuordetutako eskumenak baliatuz, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako hau

Por todo ello, en ejercicio de las competencias conferidas en virtud de delegación efectuada por de este Ayuntamiento, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad,

**ERABAKI DU**

**ACUERDA**

1.- REHABITEL Elkartea Herriaren Onurakoak izan eta dirua irabaztea xede ez duten Elkarteen Udal Erregistroan inskribatzea.

1.- Proceder a la inscripción de la Asociación REHABITEL en el Registro Municipal de Asociaciones de Interés Municipal sin Ánimo de Lucro.

2.-Honen berri interesatuari eta kontuhartzailetzari ematea Udal Araudiko 9. artikuluko ondorioak izan ditzan.

2.- Dar cuenta al interesado así como a Intervención de Fondos Municipales a efectos del articulo 9 del reglamento Municipal.

ESKU0d07ae47-74c8-4243-a518-1c69568ee59b

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, presidenteak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 10:40 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin akta hau egin dut. Idazkari orokorrak.

Y sin más asuntos de los que tratar, la presidenta levanta la sesión, siendo las 10:40 horas del día de la fecha. Y para constancia de lo tratado y de los acuerdos adoptados, extiendo la presente acta. La secretaria general.

Errenteria, 2025eko martxoaren 18a

Errenteria, 18 de marzo de 2025

Idazkari orokorra / Secretaria general

Ainhoa Esnaola Zubeldia

# Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

| | |
|---|---|
| **Titulua / Título:** | 2025IGOB0005-AKTA/ACTA (ERRENTERIAKO UDALA) |

**Digitalki sinatua:**

**Ainhoa Esnaola Zubeldia**
**Idazkari orokorra**
**Data:** 2025/03/18 13:45:05